

## “NATO ETA EB-ren AURKAKO HERRI EKIMENA”ren PRENTSAURREKOA:

Badira aste batzuk, Bilbo, Meatzaldea, Uribe-Kosta, Ezkerraldea eta Busturialdeko hainbat pertsona eta eragile gure inguruan ikusten ari garen gerra-eskaladari erantzuteko herri-ekimen honetan elkartzen ari garena. NATOk bultzatutako gerra-eskalada, hain zuzen ere, Txina, India, Iran edo Errusia bezalako potentzia berrien gorakadaren aurrean AEBen mundu-hegemonia blindatzeko. Estrategia hori porrotera kondenatuta egon arren, suntsiketa, miseria eta heriotza eragingo du mundu zabalean, lehenago ekiditen ez badugu.

Ukrainako gatazkari dagokionez, uste dugu ezin dela inola ere NATOren eta Errusiaren arteko borroka interinperialistaz hitz egin. Auzi honen jatorria, azken urteetan Vladimir Putinek zuzentzen duen gobernu legitimoa menderatzeko eta energia-baliabideak zein errusiar merkatuak kontrolatzeko planifikatutako eraso da. Egungo presidente errusiarrak, nahiz eta batzuei kosta egiten zaien hori onartzea, arpilatze eta espoliazio politika hori geldiarazi zuen. Ukraina, eraso honen operazioen oinarria eta inperialismo atlantistaren kanoi-bazka besterik ez da, haren etsai historikoaren aurka, Errusia.

Ezkerreko hainbat sektoretatik, egungo Errusia ez dela garai bateko Sobietar Batasuna entzun dezakegu. Eta arrazoi osoa dute. Arazoa, ordea, argia da: edozein estatuk helburu sozialekin abiatutako planifikazio ekonomikorik txikiena ere, pairatzen dugun parasitokapitalismoaren bideragarritasunerako oztopo bihurtu da. Hor ditugu Slovdan Milosevic, Saddam Hussein edo Muamar Gadafiren kasuak, zoritxarrez, espetxeratuak eta exekutatuak izan zirenak, isiltasun konplizearen edo “nazioarteko komunitatea” deitzen duten horren babes kartsuaren aurrean.

Gaur hemen bildu garenok lezioa ikasita daukagu: txandako gobernari deserosoa hedabideen bidez deabrutzen dute, ondorengo eraso militarrek eta erailketa inperialistak justifikatzeko. Oraingoan, oster, ez gara distantziakidetasunean eroriko. Errusiak eta Luhansk eta Donetskeko Herri-Errepublikak eskubide osoa dute NATOren eta EBren erasoetatik babesteko; izan ere, bi erakunde hauek Errusiaren aurka konspiratu eta gobernu faxistei armak ematen dizkiete; Zelenskiri, kasu, Errusia jazarri eta eskualdea ezegonkortzeko. Era berean, ezin ditugu aipatu gabe utzi Azovstalen harrapatutako batailoi naziak. Azken egunotan, Frantzia eta Alemaniako kantzilerrak hauen askatasuna aldarrikatzen entzun ditugu, negoziazioetan aurrera egin ahal izateko. Zer zor diete Europako gobernu hauek Azov naziei? Zer ezkutatu behar dute eta zergatik erosi nahi dute isiltasuna?

Egiari zor, Europar Batasuneko estatuak AEBen interesetara erabat tolesteko izan duten arrazoi zehatza ere ez dugu oso ondo ezagutzen. Bistan da, Errusiaren aurkako zigorrak eta AEBek ezarritako gas- eta petrolio-hornidurako bide berriek magnate yankiei, xeke arabiarrei eta Saudi Arabiako, Qatarreko edo Arabiar Emirerrietako monarkia absolutistek baino ez dietela mesede egiten. Borrell bezalako NATOren basailuek Europako proiektu zaharra historiako zabortegeira bota dute, behin betiko. Basailu hauek, onura eta gastu militarra lehenesten dituzte, klase popularren osasunaren eta bizi-baldintzen kalterako, eta miseria- eta sakrifizio-etorkizuna iragartzen digute, gure aurka dagoen kapitalismoaren aldeko gerra batera kondenatzen gaituztelarik. Europar Batasuna deskonposatzen ari den gorpuzki politikoa da egun, nahiz eta norbaitek pentsa zezakeen noizbait aukera aurrerakoia edo Euskal Herria bezalako nazio zapalduentzat izan zitekeela. Bistan da oker zebilela.

Euskal Herrian, hain zuzen, bereziki lotsagarria da ezker abertzale instituzionalak Ukrainan gertatzen ari denaren aurrean hartutako jarrera ofiziala. Gezurra dirudi Euskal Herri

Langilearen borroka historikoen oinordeko aldarrikatzen direnak, besteak beste, 1986an erakunde kriminal horretan irautearen aurka agertu zen Herri Langilearen oinordeko; alegia, orain bakezaletasun faltsuaren eta anbiguotasunaren bandera astintzen ikustea. Ildo horretan, immoralak iruditzen zaigu inperialismoak erasotutako direnen defentsarako zilegizko eskubidea ukatzen duen bakezaletasuna zein posizionatzen ez direnen jarrera lausoa, hartara inperialismoak aurrera egin dezan. Antiinperialismoa eta antikapitalismoa egunez egun landu behar dira, ez badugu nahi NATOren eta EBren eraso ideologiko eta kulturalak, langile-klasearen seme-alaben artean ere kalte egiten jarraitzea. 36 urte geroago, anbiguotasunik gabe berresten gara: NATOri EZ, FAXISMOARI EZ, IMPERIALISMO GENOZIDARI EZ.

Esan bezala, azken asteotan, propaganda gupidagabea ikusten ari gara estrategia inperialista horren partaide bihurtu eta gertatzen ari denaren aurrean matxinatu ez gaituzten. Komunikabide handien bidez pentsamendu bakarria hedatzen jarraitzen duten bitartean, kontakizun ofiziala zalantzan jartzen duten *Russia Today* bezalako telebista-kateak lotsarik gabe ixten, Interneteko edukiak ustezko "egiazko informazioa"ren izenean zentsuratzen, Pablo González bezalako kazetariak espetxeratzen edo gure kaleetatik propaganda politikoa sistematikoki kentzen ari dira. Ez zaigu doktrinatu besterik egin nahi, zuzenean informatuta bizitzeko eskubidea ukatu egiten zaigu. Non daude adierazpen-askatasunaren defendatzaileak? Dagoeneko ezkutuko salbuespen-estatu batean bizi al gara?

Testuinguru horretan beraz, gure betebeharra ez da soilik nazioarteko faxismoaren goraldia salatzea, baita ilegalizazioen, GALen, egunkarien itxieraren eta disidente politikoen tortura sistematikoaren Estatu espainiarraren izaera faxista bera desestaltzea ere. Kapitalista NATOzaleek ezin izango dute inoiz PSOE baino aliatu hoberik aurkitu, langile-klaseak eta herri-klaseak manipulatu eta bahitzen benetako adituak baitira. Zoritxarrez, batzuetan, memoria kolektiboa ahulegia da. Hori bai, fase berri honetarako ezkutari leiala aurkitu dute, Yolanda Díazen alderdia, hain zuzen ere. Bigarren atalak ez dira inoiz onak izan, eta dagoeneko ikusten ari gara nora garamatzaten ardi mozorroa darabilten otso hauek...

Hasieran genioenez, hainbat pertsona eta eragile elkartu gara, gure kontzientziak manipulatu eta eskubide eta askatasunak bahitzea xede duen diskurtso hegemoniko horri aurre egiteko. Muskizetik Gernikaraino, gaur eta hemen, ezer onik iragartzen ez duen erasoaldi inperialista honen aurka jaiki egiten gara. Izan ere, sufrimendu hori guztia ez da beharrezkoa, ez dugu zertan NATOk eta EBk kondenatu nahi gaituzten gerra eta miseria onartu. Halaber, ez da etxean begira geratzeko unea, ezta gerra bideo-joko bat balitz bezala jarraitzeko ere. Herri Langilearen antolakuntzak soilik zuzendu dezake, bai Euskal Herrian, bai Europako zein munduko gainerako herrietan, historiaren norabide tristea.

Hori guztia esanda, Euskal Herriko zein beste nazio batzuetako herri eta auzo guztiei dei egiten diegu inperialismoaren, kapitalismoaren eta faxismoaren aurkako borroka antolatzeko. Era berean, NATOren eta EBren eraso inperialistaren aurka dauden pertsona guztiak Bilbon, ekainaren 18an, 18:30etan Plaza Eliptikotik aterako den manifestazioan parte hartzera gonbidatzen ditugu.

**OTAN EZ! EUROPAR BATASUNA EZ! IMPERIALISMOARI EZ!**

Bilbon, 2022ko ekainaren 2an